

“Peruz maiteminduta itzuli nintzen!”. Oso ondo gogoratzen ditut EGOAIZIA eta Euskal Gazteria Lankidetzan programako kide batek Bea eta ni Piurara gindoazela esan genionean bere hitzak zeintzuk izan ziren. Bera lehenago egon baitzen herrialde hartan, hiru hilabetez izan bazen ere, guretzak oso garrantzitsuak izan zen egonaldia.

Piurara iritsi bezain laster hasiera bateko beldur guztiak ahaztu genituen, CIPCAko kide eta ume asko zeuden gure zain aireportuan. Hurrengo hilabetetan bizitzeko genuenaren sarrera bat besterik ez zen izan.

Horrelako proiektu batean betidanik lan egin nahi izan nuen. Gainera, nik ikasitako esparruan, ekonomia, lan egiteko aukera ere izan nuen ikuspuntu sozial batetik. EGOAIZIA eta CIPCAk azken hau bezalako GKE batek nola lan egiten duen ikusteko aukera eskaini didate. CIPCA eskualdeko nekazarien garapenean alde lanean diardu aspalditik.

Hiru hilabete hauetan CIPCAko lankideak Piurako mendietan martxan dituzten proiektuak ikuskatzera eramanez ninduten. **Aurrekontu Partehartzaileen** azkenen bilerara joateko aukera e izan nuen. Programa honen **bidez, herritarrek hurrengo urtean burutuko diren proiektuen kudeaketa eta garapenean sartzen dira**. Era honetara, herriaren alde lan egiten da, benetako beharrak zeintzuk diren zehaztuz eta herriak berak lehentasunak ezarriz. Azken bilera honetan, hurrengo urtean egingo ziren proiektuei buruzko bozkaketa egin zuten. Hainbat kasutan, helburua lortzeko urte bat baino gehiago beharko dute, hauek epe luzerako proiektuak izanik. CIPCA 90. hamarkadatik darama Aurrekontu Partehartzaileak aurrera eramaten. Herriak parte har dezan garrantzitsua da, hainbeste beharren aurrean, dirua benetan behar ez dituzten eraikuntza erraldoiak egiteko erabil ez dezaten. Udaletxe askok egiten duten moduan, herria pozik egoteko asmoz biztanle gutxiko herri batean egindako futbol zelaiak eginez, adibidez. Gainera, berebiziko garrantzia ere badu herritarrek ikus dezaten hainbat proiektu egiteko beharrezkoa den denbora, esfortzu eta baliabideen erabilera, baina azkenean hauek uztartuz helburuak lortzen direla.

Lalaquiz-en txikitxoekin zer ikusia duen CIPCAren proiektua bisitatu genuen. **Haur txikien desnutrizio maila oso handia da Huancabamba probintzian**. Hainbat programa ezberdin izan arren, Esne Basokadarena esaterako, haurrak era aproposan elikatu gabe jarraitzen dute. Zalantzarik gabe, konponbidea behar duen arazorik larrietako bat da. Umeak gure oraina eta geroa direla ezin dugu ahaztu. Gainera, lehenengo urte horietan haurren eskolatzeko maila oso txikia da. Eta urte horietan garatzen dituzte umeek euren gaitasun ia gehienak.

Horregatik, barrutian lanean ari diren beste hainbat GKEekin batera CIPCAk ume hauen egoera hobetzeko lanean dabil.

Buenos Aires eta La Matanzan egon ginen denbora gehien proiektuak ikuskatzen. Hiru hilabeteen zehar CIPCAko jendeak barrutien edo Monporroneko bi herri hauen udaletxeen Garapen Ekonomikoko taldeekin eskuz esku nola lan egiten duen ikusi dut. Herri nekazarien garapenean batik bat lan egitean, nik neuk ikusi nuen **nekazari hauek multinazionalen lehia handiari aurre egiteko duten aukera bakarra elkartzea dela da**. Biziraun eta euren helburuak lortu nahi badituzte, zalantzarik gabe elkar lagunduz lan egin behar dute. Elkarketari buruzko hainbat bilera ezberdinetaz haratago, Bidezko Merkataritza, kapazitazioak eta abarri buruzko bilerak ere egin genituen. Hots, Cassandra Hutchinonek (Cuerpo de Paz) eginiko lehen bilera hauetako batera joateko aukera eduki nuen, zehazki Negozio Planeli buruzkoa, inguruko elkarte ezberdinen laguntzaz (Cumamiel, Asdeme, Infocentros...).

Zalantzarik gabe, GKEak han burutzen duen lanaren arloan ikusi genituen gauzei buruz denbora asko egon gaitzke idazten. Baina hainbeste bizipen eta momentu lerro gutxi batzuetan laburtzea ez da batere erraza.

Horregatik, esperientzia hau posible egin duten guztiei eskerrik beroena eman nahi diet. Bea eta biok diogu gehien sentiarazi digun esperientzia izan dela. Asko lagundu digula uste dut... batez ere, geure burua berriro aurkitzea, bizi, sentitu eta lan egiteko beste modu asko daudela ikusteko .

Mila esker CIPCA eta EGOAIZIARI hain aditu onekin, beraiek eta beraien lanari buruz ikasteko aukera emateagatik. Eta nekazariak Piuran burutzen duten lana ezagutzeko aukera izateagatik. Guretzat oso esperientzia garrantzitsua izan da.

Eskerrik asko Eusko Jaurlaritzako Euskadiko Gazteak Lankidetzan programari hau guzti hau beraien lana gabe ezinezkoa izango zelako. Horrelako proiektu bat egitean, EGOAIZIA, CIPCA eta Eusko Jaurlaritzaren programa behar beharrezkoak dira. **Noizbait euren baliabideen neurrian laguntzeko gogoia izan duten guztiei programa honetan parte hartzera animatuko nieke.**

Eta ezin naiz agurtu Piurako familia, lagun eta lankideak gogoratu gabe. Peruko onena zer den galdetzen didatenean, onena bertako jendea dela esateko zalantzarik ez dut, lehenengo egunetik etxean egongo bagina bezala sentiarazi gintuztelak. Beti eramango dugu gurekin Piurako zatitxo bat.

Hurrengo urtean programa honetako partehartzaile batek hitz gutxitan nire esperientzia labur dezan eskatzen badit, nire erantzuna argi daukat:

“Peruz maiteminduta itzuli nintzen”.

Itxaso Campo.